a) La instrucción de los procedimientos en concurrencia competitiva corresponderá al órgano que se designe en la convocatoria.

2. El órgano instructor realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento, y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

3. Las actividades de instrucción comprenderán necesariamente las siguientes actuaciones:

a) Petición de cuantos informes estime necesarios para resolver o que sean exigidos por las normas que regulan la subvención. El plazo para su emisión será de 10 días, salvo que el órgano instructor, atendiendo a las características del informe solicitado o del propio procedimiento, solicite su emisión en un plazo menor o mayor, sin que en este último caso pueda exceder de dos meses.

b) Evaluación de las solicitudes, efectuada conforme con los criterios, formas y prioridades de valoración establecidos en la norma reguladora de la subvención o, en su caso, en la convocatoria.

Esta podrá prever una fase de pre-evaluación, en la que se verifica el cumplimiento de las condiciones impuestas para adquirir la condición de beneficiaria/o de la subvención.

Evaluadas las solicitudes por el órgano instructor, la comisión de valoración (órgano colegiado) constituida al efecto emitirá informe motivado en el que se concrete el resultado de la evaluación efectuada. La composición de la comisión de valoración será la que establezcan las correspondientes Bases reguladoras.

De no expresarse otra cosa en las Bases, dicho órgano colegiado estará formado por todas las personas que sean miembros de la Comisión Informativa competente por razón de la materia, cuyo Secretario/a ostentará a su vez, la secretaría del órgano colegiado.

4. El órgano instructor, a la vista del expediente y del informe de la Comisión de Valoración, formulará la propuesta de resolución, debidamente motivada, que será trasladada al órgano competente para resolver.

5. Ebazpen proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko Elgoibarko Udalari proposatu zaion onuradunaren alde, emakidaren ebazpena jakinarazten ez zaion bitartean.

6. Behin betiko ebazpen proposamenean honako hauek aipatu beharko dira:

— Diru-laguntza jasotzeko proposatutako eskatzaileen zerrenda.

— Diru-laguntzaren zenbatekoa.

— Ebazpena emateko egin den ebaluazioa eta kontuan izan diren jarraibideak zehaztea.

Izapidetze fasean, onuradun gisa proposatu dituztenei behin betiko ebazpen proposamena jakinarazi ahal izango zaie. Horiek, hamar eguneko epean, diru-laguntza onartzen dutela adierazi beharko dute.

20. artikulua. Ebazpena.

1. Gainerako espedientearekin batera, ebazpen-proposamena jaso ostean, organo eskudunak prozedura ebatziko du. Hori egin aurretik, Udaleko Kontu-hartzaileak ebazpen-proposamena fiskalizatuko du, proposamena egin eta hamabost eguneko epean.

2. Ebazpena bat etorriko da Epaimahai Kalifikatzaileak egindako proposamenarekin. Hala ere, salbuespeneko kasuren batean, organo eskudunak, behar bezala arrazoiturik, prozeduran arau-hauste larriren bat egin dela ikusiz gero, prozeduran atzera egiteko agindua emango du, arau-haustea edo legaltasunaren aurkako ageriko arau-hauste larria egin zeneko unera arte. Kasu horretan, egokitzat jotzen duen eta Zuzenbidearekin bat datorren oinarriko ebazpena emango du.

3. Ebazpena diru-laguntza arautzen duen Ordenantza honetan, oinarri espezifikoetan eta deialdian zehaztutakoaren arabera emango da; eta prozeduran, ebazpenaren oinarriak egiaztatu egin beharko dira.

4. Ebazpen horretan diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda jasoko da. Era berean, diru-laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko era, justifikatzeko era eta Ordenantza Orokorrean eta oinarri espezifikoetan ezarritako gainerako baldintzak eta betebeharrak zehaztuko dira. Horretaz gain, onuradunaren betebeharrak, ezetsi egin diren gainerako eskabideak eta horiek ezesteko arrazoiak aipatu beharko dira.

5. Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, Lege mailako arau batek edo Autonomia Erkidegoko araudian aurreikusitakoak epe luzeagoa eman ezik. Epe hau deialdia argitaratzen den unetik hasiko da kontatzen, baldin eta deialdian epearen eragina berandua-goko egun batera atzeratzen ez bada. Epe hori igaro eta berariazko ebazpena jakinarazten ez bada, diru-laguntzak eskatu dituzten pertsonak edo erakundeek uste ahal izango dute, beraien diru-laguntza eskabideak ezetsi egin dituztela.

6. Ebazpena administrazio erkidearen prozedurari buruzko araudiaren arabera egingo da. Horretarako, hamar eguneko epea izango da, ebazpena ematen denetik hasita. Horretaz gain, legezkoak diren errekursoak aurkeztu beharko dira.

7. Gehieneko epea igaro, eta ebazpena jakinarazten ez bada, interesatuak legitimatuta egongo dira, administrazio isiltasunaren bidez, beraien eskabideak esetsi egin dituztela uste izanik, egokitzat jotzen dituzten administrazioarekiko errekursoak edo errekurso judizialak aztertzeke.

5. La propuesta de resolución no crea derecho alguno a favor de la persona beneficiaria propuesta, frente al Ayuntamiento de Elgoibar, mientras no se le haya notificado la resolución de concesión.

6. La propuesta de resolución definitiva deberá contener:

— La relación de solicitantes para los que se propone la concesión de la subvención.

— La cuantía de la subvención.

— Especificación de la evaluación y de los criterios seguidos para efectuarla.

La propuesta de resolución definitiva podrá notificarse a las personas interesadas que hayan sido propuestos como beneficiarias en la fase de instrucción, para que en el plazo de diez días comuniquen su aceptación.

Artículo 20. Resolución.

1. Una vez recibida la propuesta de resolución, junto con el resto del expediente, el órgano competente resolverá el procedimiento, previa fiscalización de la Intervención Municipal, en el plazo de quince días desde la fecha de elevación de la propuesta de resolución.

2. La resolución se ajustará a la propuesta formulada por el Tribunal Calificador, salvo que excepcionalmente, el órgano competente, por resolución motivada, observe infracción grave del procedimiento, en cuyo caso ordenará la retroacción del mismo al momento en que se cometió la infracción, o infracción grave y manifiesta de la legalidad, en cuyo caso adoptará la resolución de fondo ajustada a Derecho que estime pertinente.

3. La resolución se motivará de conformidad con lo dispuesto en la presente Ordenanza, en las bases específicas y en la convocatoria por la que se rige, debiendo quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de su resolución.

4. Dicha resolución contendrá la relación de personas solicitantes a las que se concede la subvención, con expresión de su cuantía, forma de pago, forma de justificación y de las demás condiciones y requisitos exigidos en la Ordenanza general y en las bases específicas, así como las obligaciones de los y las beneficiarias, y la desestimación del resto de las solicitudes, en su caso y los motivos en que se fundamenta.

5. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento será de seis meses, salvo que una norma con rango de Ley o lo previsto en la normativa de la Unión Europea, establezca uno mayor. El plazo se computará a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria, salvo que la misma posponga sus efectos a una fecha posterior. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución expresa, las personas o entidades solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes de subvención.

6. La notificación de la resolución se efectuará según la normativa de procedimiento administrativo común en el plazo de 10 días desde que fuese emitida, expresando los recursos legalmente procedentes.

7. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución, legitima a las personas interesadas para entender desestimada por silencio administrativo su solicitud de concesión de subvención, a fin de interponer los recursos administrativos o judiciales que estimen pertinentes.

21. artikulua. Publizitatea.

1. Emakidari buruzko ebazpena diru-laguntza ematen duen erakundearen iragarki taulan eta web gunean argitaratu beharko da. Deialdia, programa, diru-laguntzek aurrekontuko zein kredituri eragiten dioten, onuraduna, emandako zenbatekoa eta diru-laguntzaren xedea aipatu beharko dira.

Halaber, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ebazpenaren laburpena argitaratuko da, eta aldi berean, adierazi egin beharko ebazpenaren eduki osoa zein tokitan dagoen.

2. Hala ere, ez da diru-laguntza argitaratuko, pertsona onuradunaren datuak argitaratzea errespetuaren, ohorearen, pertsonaren intimitatearen edo pertsona fisikoen senideen intimitatearen aurkakoa bada, maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Dekretuan, ohorearen, familiaren eta norbanakoaren intimitatearen; eta norberaren irudi eskubideen babes zibilar buruzko Lege Dekretuan, ezarritakoaren arabera.

3. Elgoibarko Udalak edo bere ardurapeko Autonomiadun Erakundeek emandako diru-laguntza guztiek berez dakarte, diruz lagundutako jarduerari buruzko dokumentazio eta propaganda idatzizkoan edo grafikoa, jarduera horrek Udalaren diru-laguntza jasotzen duela aipatzeko betebeharra. Horiek horrela, propagandan Elgoibarko Udalaren eta bere ardurapeko Autonomiadun Erakundeen logotipoa txertatu beharko da.

III. KAPITULUA. IZENDUN DIRU-LAGUNTZAK ZUZENEAN EMATEKO ARAUBIDEA ETA PROZEDURA

1. ATALA. Udalaren aurrekontuan aurreikusitako izendun diru-laguntzak zuzenean emateko araubidea eta prozedura

22. artikulua. Araubidea.

1. Honako hauek izango dira Udalaren Aurrekontuan aurreikusi diren izendun diru-laguntzak: Aurrekontuen gastuei buruzko egoera-orrian, dirulaguntzaren xedea, aurrekontuko izendapena eta onuraduna berariaz adierazten dituztenak.

2. Udalaren Aurrekontuan aurreikusitako izendun diru-laguntzak emakida-ebazpenaren eta horiek bideratzen dituzten hitzarmenaren bidez arautuko dira. Bertan ezarriko dira aplika daitezkeen berariazko baldintzak eta konpromisoak, Ordenantza honen xedapenetan eta Diru-laguntzei buruzko Ordenantzaren eta Legean aurreikusitakoaren arabera, publizitate eta konkurrentzia printzipioei dagokienean izan ezik.

3. Hitzarmena idazterakoan, gutxienez, honako arlo hauek aipatu beharko dira:

- a) Hitzarmena egiten duten alderdiak. Onuraduna identifikatzen duten datuak ere zehaztuko beharko dira.
- b) Xedearen deskribapena.
- c) Aurreikusitako jarduerak eta alderdien arteko konpromisoak.
- d) Diru-laguntzak aurrekontuko zein kredituri eragiten dion.
- e) Diru-laguntzaren zenbatekoa eta Norberaren finantzazioaren bidez edo beste zenbait diru-laguntzaren bidez, onuradunak, proiektuaren aurrekontutik zein portzentaje finantzatuko duen.
- f) Justifikatzeko era, dagokion dokumentazioa aurkezteko epea eta ebaluazio txostenean jaso beharreko gorabeherak.
- g) Onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Artículo 21. Publicidad.

1. La resolución de concesión será publicada en el tablón de anuncios y en la página web de la entidad concedente con expresión de la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, beneficiaria/o, cantidad concedida y finalidad de la subvención.

Asimismo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa se publicará un extracto de la resolución haciendo indicar el lugar donde se encuentra expuesto el contenido íntegro de la misma.

2. No obstante no será necesaria su publicación cuando la publicación de los datos de la persona beneficiaria en razón del objeto de la subvención pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas o la propia imagen, en virtud de lo establecido en la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen.

3. Cualquier subvención concedida por el Ayuntamiento de Elgoibar y sus Organismos Autónomos, podrá llevar implícita la condición de que en la documentación y propaganda escrita o gráfica de la actividad subvencionada se haga constar que la misma se halla subvencionada por este Ayuntamiento, incluso incluyendo el logotipo del Ayuntamiento de Elgoibar y sus Organismos Autónomos.

CAPÍTULO III. DEL RÉGIMEN Y PROCEDIMIENTOS DE CONCESIÓN DIRECTA DE LAS SUBVENCIONES NOMINATIVAS

SECCION 1. Del régimen y procedimiento de concesión directa de las subvenciones previstas nominativamente en el presupuesto municipal

Artículo 22. Régimen.

1. Son subvenciones previstas nominativamente en el Presupuesto municipal aquellas cuyo objeto, dotación presupuestaria y beneficiaria/o aparecen determinados expresamente en el estado de gastos del presupuesto.

2. Las subvenciones previstas nominativamente en el Presupuesto Municipal del Ayuntamiento de Elgoibar se registrarán por la resolución de concesión y por el convenio a través del cual se canalicen, donde se establecerán las condiciones y compromisos específicos aplicables, de conformidad con las disposiciones de esta Ordenanza y de la Ley y Reglamento de Subvenciones, salvo en lo se refiere a los principios de publicidad y concurrencia.

3. En la redacción del convenio deberán especificarse, al menos, los siguientes aspectos:

- a) Partes concertantes, con indicación de los datos identificativos de la persona beneficiaria.
- b) Descripción del objeto.
- c) Actuaciones previstas y compromisos de las partes
- d) Crédito presupuestario al que se imputa la subvención.
- e) Importe de la subvención, y tanto por ciento del presupuesto del proyecto a financiar por la persona beneficiaria, bien por financiación propia o a través de otras subvenciones.
- f) Forma de justificación, plazo de presentación de la correspondiente documentación y aspectos a incluir en la memoria evaluativa.
- g) Documentación a aportar por la persona beneficiaria.

- h) Indarraldia, betebeharrak eta baldintzak.
- i) Diru-laguntzaren bateragarritasuna eta bateraezintasuna.
- j) Hitzarmenaren betetze mailari dagokion jarraipena egiteko mekanismoak.
- k) Araubide juridikoa
- l) Hitzarmenaren izaera administratiboa. Hitzarmenaren edukiari edo ezarpenari buruz sor litezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe jarriko direla adieraziko da.
- m) Hala badagokio, onuradunek bete behar dituzten bermeen araubidea, bermeak eratzeko bitartekoak, gordailuak eta ezerezteak.
- n) Hala badagokio, diruz lagundutako jarduerari buruzko dokumentazio eta propaganda idatzizkoan edo grafikoan, jarduera hori Udalak diruz laguntzen duela aipatzeko betebeharra.
- o) Ordainketa era, finkatzea eta justifikatzea barne. Hala badagokio, konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egiteko aukera ere zehaztu beharko da.

23. artikulua. Hasiera.

Diru-laguntza emateko prozedura ofizios hasiko da, gestioa egiten duden Udaleko Sailaren proposamenaren bidez. Ezinbestekoa izango da, diru-laguntza jasoko duen pertsonaren alde, udalaren aurrekontuan berriazko diru-izendapena egitea.

Udalaren aurrekontuan honako hauek zehaztu beharko dira: Diru-laguntza izendunaren onuraduna, zenbatekoa eta xedea. Horretaz gain, gestionatzen duen organoak behar bezala justifikatu beharko du ezinezkoa dela norgehiagokaren printzipioa erabiltzea.

Aurrekontuko partida Udalaren aurrekontuan sartzeak ez du sortuko inolako eskubiderik onuradunaren alde, baldin eta ezarritako prozeduraren aurretik, organo eskudunak emakidaren aldeko ebazpena eman ez badu.

Era berean, aurrekontuko ekitaldi jakin batean diru-laguntza bat izendatuta egoteak ez du esan nahi datozen urteetarako ere diru-laguntza izendatuta egongo denik.

24. artikulua. Izapidetzea.

1. Diru-laguntza gestionatzen duen arloko arduradunari dagokio diru-laguntza emateko prozedura izapidetzea.

2. Izapidetzeko ekintzaren baitan, ezinbestean, honako jarduera hauek burutu beharko dira:

a) Diru-laguntza arautuko duen hitzarmenari buruzko testua prestatzea. Testu horrek Udaleko zerbitzu juridikoen oniritzi juridikoa izan beharko du. Horretaz gain, zerbitzu horiek txosten juridiko bat egingo dute hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela adierazteko.

b) Udaleko Kontu-hartzailearen txosten bat ere egin beharko da.

c) Izapidetzen duen organoaren txostena. Bertan jaso beharko da, bere esku dituen datuen arabera, onuradunak betetzen dituela diru-laguntza lortzeko baldintzak.

3. Izapidetzea bukatu ondoren, organo eskudunari emakidarako proposamena egingo zaio, onar dezan.

25. artikulua. Ebazpena.

Emakidarako proposamena eta gainerako espedientea bidali ondoren, organo eskudunak diru-laguntza emateko prozedura ebatziko du.

- h) Plazo de vigencia, requisitos y condiciones.
- i) Compatibilidad o incompatibilidad de la subvención.
- j) Mecanismos de seguimiento de la ejecución del convenio.
- k) Régimen jurídico.
- l) Carácter administrativo del convenio y sometimiento a la jurisdicción contencioso administrativa de las posibles cuestiones litigiosas surgidas sobre su contenido y aplicación.
- m) En su caso, régimen de garantías, medios de constitución, depósito y cancelación que se establezca que deban constituir las personas beneficiarias.
- n) En su caso, la condición de que en la documentación y propaganda escrita o gráfica de la actividad subvencionada se haga constar que la misma se halla subvencionada por este Ayuntamiento.
- o) Fijación y justificación, en su caso, de la posibilidad de efectuar pagos a cuenta y pagos anticipados.

Artículo 23. Iniciación.

El procedimiento para su concesión se inicia de oficio mediante la propuesta del Área municipal gestor, siendo imprescindible la existencia de consignación específica en el presupuesto municipal a favor de la persona a la que va destinada la subvención.

En el Presupuesto Municipal se deberán especificar la persona beneficiaria, el importe y el concepto (objeto) de la subvención nominativa, así como justificarse debidamente por el órgano gestor la imposibilidad de aplicación del principio de concurrencia.

La inclusión de la partida presupuestaria en el presupuesto municipal no crea derecho alguno a favor de la persona beneficiaria, mientras no haya sido adoptada la resolución de concesión, previo el procedimiento establecido, por el órgano competente.

A su vez, el hecho de que en un ejercicio presupuestario se encuentre consignada una subvención no genera expectativas de derecho en futuras anualidades.

Artículo 24. Instrucción.

1. La instrucción del procedimiento de concesión corresponderá al responsable del área gestora de la subvención.

2. Las actividades de instrucción comprenderán necesariamente:

a) Elaboración del texto del convenio regulador de la subvención, que deberá contar con visto bueno jurídico e informe jurídico de su ajuste a derecho emitido por los servicios jurídicos municipales.

b) Inclusión de informe de la Intervención Municipal.

c) Informe del órgano instructor, en el que conste que, de los datos que obran en su poder, la persona beneficiaria reúne los requisitos para acceder a la subvención.

3. Completada la instrucción se someterá la propuesta de concesión al órgano competente para su aprobación.

Artículo 25. Resolución.

Una vez remitida la propuesta de resolución junto con el resto del expediente, el órgano competente resolverá el procedimiento de concesión de la subvención.

Ebazpena ordenantza honetan eta indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera egingo da, eta onuradunari jakinarazi beharko zaio, Herri Administrazioei eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 58. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

26. artikulua. Diru-laguntza onartzea.

Diru-laguntzaren onarpena formalizatzeko, bi alderdien arteko hitzarmena sinatu beharko da.

2. ATALA. Gainerako diru-laguntzak salbuespenez zuzenean emateko araubidea eta prozedura

27. artikulua. Araubidea.

Salbuespen gisa, honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira: Herri intereseko arrazoiak; hezkuntza, kultura eta zientzia arloko arrazoiak; arrazoi humanitarioak edo hartzailea zein den kontuan izanik, behar bezala justifikatutako arrazoiak egiaztatzen dituzten diru-laguntzak, baldin eta, diru-laguntzaren xedea betetzeko onuradun bakarra edo onuradun talde bakarra dagoelako, norgehiagoka publikoa egitea ezinezkoa bada.

Kasu honetan diru-laguntzaren erabilgarritasuna, gizarte interesa eta xede publiko jakin baten lorpena arrazoitzeaz gain, espedientean, arrazoitutako txosten baten bidez, justifikatu egin beharko da ezinezkoa dela publizitateari eta norgehiagokari buruzko printzipio arautzaileak ezartzea.

28. artikulua. Hasiera, izapidetzea eta instrumentazioa.

1. Gestionatzen duen organoak hasiera emango dio dagoen espedienteari. Bertan, nahitaez erantsi beharko da aurreko gorabehera guztiak batera gertatzen direla justifikatzen eta arrazoitzen duen txostena.

2. Diru-laguntza gestionatzen duen arloko arduradunari dagokio diru-laguntza emateko prozedura izapidetzea.

3. Izapidetzeko ekintzaren baitan, ezinbestean, honako jarduera hauek burutu beharko dira:

a) Diru-laguntzaren ebazpenari buruzko testua edo diru-laguntza arautuko duen hitzarmenari buruzko testua prestatzea. Testu horrek Udaleko zerbitzu juridikoen oniritzi juridikoa izan beharko du, eta zuzenbidearekin bat datorrela adierazi beharko du.

b) Udaleko Kontu-hartzaitzaren fiskalizazioa.

c) Izapidetzen duen organoaren txostena. Bertan jaso beharko da, bere esku dituen datuen arabera, onuradunak diru-laguntza lortzeko baldintzak betetzen dituela.

4. Izapidetzea bukatu ondoren, organo eskudunari emakidarako proposamena egingo zaio, onar dezan.

5. Aurreko artikuluan xedatutakoari jarraiki ematen diren diru-laguntzak, oro har, hitzarmenen bidez instrumentatuko dira. Hitzarmenetan berriazko baldintzak eta betebeharrak zehaztuko dira.

29. artikulua. Hitzarmenaren edukia.

1. Hitzarmena idazterakoan, gutxienez, honako arlo hauek aipatu beharko dira:

a) Hitzarmena egiten duten alderdiak. Onuraduna identifikatzen duten datuak ere zehaztuko dira.

b) Diru-laguntzen xedearen definizioa. Diru-laguntza horien izaera berezia aipatu beharko da, eta diru-laguntza horiek emateko herri intereseko arrazoiak; hezkuntza, kultura eta zientzia arloko arrazoiak; arrazoi humanitarioak edo hartzailea zein den kontuan izanik, diru-laguntza ematea behar bezala justifikatzen duten arrazoiak ere badaudela adierazi beharko da. Horretaz gain, diru-laguntzen xedea betetzeko onuradun edo onuradun talde bakarra dagoelako, norgehiagoka publikoa egitea ezinezkoa dela egiaztatu beharko da.

La resolución se motivará de acuerdo con lo dispuesto en la presente ordenanza y en la normativa vigente y será notificada a la persona beneficiaria, de conformidad con lo dispuesto en el art. 58 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 26. Aceptación de la subvención.

La aceptación de la subvención se formalizará a través de la firma del convenio entre las partes.

SECCION 2.ª Del régimen y procedimiento de concesión directa y excepcional del resto de subvenciones

Artículo 27. Régimen.

Podrán concederse de forma directa, con carácter excepcional, aquellas subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico, educativo, cultural, científico, humanitario u otras debidamente justificadas que, por razón de la persona destinataria, excluyan la posibilidad de concurrencia pública, por existir únicamente una persona beneficiaria o grupo de personas beneficiarias capacitado para realizar el objeto de la subvención.

En este caso, además de motivarse la utilidad, el interés social o la consecución de un fin público de la subvención, deberá justificarse en expediente, mediante informe motivado, la imposibilidad de aplicar los principios rectores de publicidad y concurrencia.

Artículo 28. Iniciación, instrucción e instrumentación.

1. El órgano gestor incoará el correspondiente expediente, en el que necesariamente deberá incluirse informe justificativo y motivado de la concurrencia de las circunstancias descritas en el artículo anterior.

2. La instrucción del procedimiento de concesión corresponderá al responsable del área gestora de la subvención.

3. Las actividades de instrucción comprenderán necesariamente:

a) Elaboración del texto de la resolución o convenio regulador de la subvención, que deberá contar con visto bueno jurídico e informe jurídico de su ajuste a derecho emitido por los servicios jurídicos municipales.

b) Fiscalización de la Intervención Municipal

c) Informe del órgano instructor, en el que conste que, de los datos que obran en su poder, la persona beneficiaria reúne los requisitos para acceder a la subvención.

4. Completada la instrucción se someterá la propuesta de concesión al órgano competente para su aprobación.

5. Las subvenciones que se concedan conforme a lo dispuesto en el artículo anterior, se instrumentarán, con carácter general, en convenios, donde se establecerán las condiciones y estipulaciones específicas.

Artículo 29. Contenido del Convenio.

1. En la redacción del convenio deberá especificarse:

a) Partes concertantes, con indicación de los datos identificativos de la persona beneficiaria o beneficiarias.

b) Definición del objeto de las subvenciones, con indicación del carácter singular de las mismas y de las razones que acreditan el interés público, social, económico, educativo, cultural, científico, humanitario, u otras debidamente justificadas que por razón del destinatario excluyan la posibilidad de concurrencia pública, por existir únicamente una persona beneficiaria o grupo de personas beneficiarias capacitadas para realizar el objeto de la subvención.

c) Aurreikusitako jarduerak eta alderdien arteko konpromisoak.

d) Diru-laguntzak aurrekontuko zein kredituri eragiten dion.

e) Diru-laguntzaren zenbatekoa, eta norberaren finantzazioaren bidez edo beste zenbait diru-laguntzaren bidez, onuradunak proiektuaren aurrekontutik zein portzentaje finantzatuko duen.

f) Justifikatzeko era, dagokion dokumentazioa aurkezteko epea eta ebaluazio txostenean jaso beharreko gorabeherak.

g) Hala badagokio, onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

h) Indarraldia, betebeharrak eta baldintzak.

i) Diru-laguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

j) Hitzarmenaren betetze mailaren jarraipena egiteko mekanismoak.

k) Araubide juridikoa.

l) Hitzarmenaren izaera administratiboa. Hitzarmenaren edukiari edo ezarpenari buruz sor litezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe jarriko direla adieraziko da.

2. Eduki osagarri gisa, Hitzarmenak honako puntu hauek jaso ahal izango ditu:

a) Hala badagokio, konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egiteko aukera finkatzea eta justifikatzea.

b) Hala badagokio, Diru-Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 30/2003 Lege Orokorrean ezarritako arau orokorren salbuespen gisa jasotzen diren espezifikotasunak.

c) Bermeen araubidea, bermeak eratzeko bitartekoak, eta hala badagokio, onuradunek edo erakunde laguntzaileek eratu behar dituzten gordailuak eta ezerezteak.

d) Hala badagokio, diruz lagundutako jarduerari buruzko idatzizko dokumentazio eta propaganda grafiko guztietan, jarduera hori Udalak diruz laguntzen duela aipatzeko betebeharra.

30. artikulua. Ebazpena.

1. Beharrezko kreditua atxiki ondoren, eta Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena egin ostean, diru-laguntza gestionatzen duen Udalaren Arloak, diru-laguntza emateko proposamena egingo dio organo eskudunari, onar dezan.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da. Epe hau emakidaren prozedurari hasiera ematen dion ebazpena onartzen den unetik hasiko da kontatzen, baldin eta ebazpenean epearen eragina beranduagoko egun batera atzeratzen ez bada.

3. Emakidari buruzko akordioaren motibazioari, edukiari, jakinarazpenari, errekurtsoen araubideari eta emakidaren akordioa iragartzeari dagokionean, Ordenantza honen 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitakoa ezarriko da.

4. Ebazpenen publizitateari dagokionean, Ordenantza honen 22. artikuluan aurreikusitakoa izango da kontuan.

31. artikulua. Prozeduraren salbuespenak.

Salbuespen gisa, ez da aipatutako hitzarmenak egiteko beharrik izango, atal honetako lehenengo paragrafoan jasotako gorabeheraz gain, beste bi baldintza hauek gertatzen badira:

c) Actuaciones previstas y compromisos de las partes.

d) Crédito presupuestario al que se imputa la subvención.

e) Importe de la subvención y tanto por ciento del presupuesto del proyecto a financiar por la persona beneficiaria o grupo de personas beneficiarias, bien por financiación propia o a través de otras subvenciones.

f) Forma de justificación, plazo de presentación de la correspondiente documentación y extremos a incluir en la memoria evaluativa.

g) Documentación a aportar por la persona beneficiaria, en su caso.

h) Plazo de vigencia, requisitos y condiciones.

i) Compatibilidad o incompatibilidad de la subvención.

j) Mecanismos de seguimiento de la ejecución del convenio.

k) Régimen jurídico.

l) Carácter administrativo del convenio y sometimiento a la jurisdicción contencioso administrativa de las posibles cuestiones litigiosas surgidas sobre su contenido y aplicación.

2. Como contenido adicional, el Convenio podrá contener, entre otros, los extremos siguientes:

a) Fijación y justificación, en su caso, de la posibilidad de efectuar pagos a cuenta y pagos anticipados.

b) En su caso, especificidades que supongan excepción a las reglas generales establecidas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre de General de Subvenciones.

c) Régimen de garantías, medios de constitución, depósito y cancelación que, en su caso, se establezca que deban constituir las personas beneficiarias.

d) En su caso, la condición de que en toda la documentación y propaganda escrita o gráfica de la actividad subvencionada se haga constar que la misma se halla subvencionada por este Ayuntamiento.

Artículo 30. Resolución.

1. El Área municipal gestor, una vez retenido el crédito necesario, y previo el informe de la Intervención municipal, someterá la propuesta de la concesión de las subvenciones al órgano competente para su aprobación.

2. El plazo máximo para resolver y notificar no podrá exceder de seis meses. El plazo se computará a partir de la aprobación de la resolución por la que se inicia el procedimiento de concesión, salvo que la misma posponga sus efectos a una fecha posterior.

3. En cuanto a la motivación, contenido, notificación, régimen de recursos y publicación del acuerdo de concesión regirá lo previsto en los artículos 21 y 22 de esta Ordenanza.

4. En cuanto a la publicidad de las resoluciones regirá lo previsto en el artículo 22 de esta Ordenanza.

Artículo 31. Excepciones al procedimiento.

Con carácter excepcional, se podrá prescindir de los mencionados convenios en aquellos casos en que, concurriendo las circunstancias contenidas en el primer artículo de esta sección, se den además los dos siguientes requisitos:

a) Onuradun berberak, jarduera berarengatik eta ekitaldi berean, 3.000 eurotik gorakoa ez den diru-laguntza jasotzea.

b) Jarduera burutuko duen pertsona fisiko edo juridikoaren nahiz erakundearen ezaugarriak direla medio, norgehiagoka publikoa egitea ezinezkoa bada, diru-laguntzaren xedea betetzeko gaitasuna duen onuradun edo onuradun talde bakarra dagoelako.

Kasu honetan, emakidari buruzko ebazpenean bertan jarriko dira deialdia norgehiagokaren bidez egitea ezinezkoa dela justifikatzen duten arrazoiak. Era berean, ebazpenean adierazi egin beharko dira onuradunak edo onuradunek jaso duten diru-laguntzaren baldintzak, konpromisoak edo diru-laguntzaren erabilerari buruzko justifikazioa egiteko era, Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, diru-laguntzen emakidari buruzko espediente egin beharko da. Horretaz gain, espediente txosten tekniko jaso beharko da, norgehiagoka egitea ezinezkoa dela eta salbuespeneko prozedura hau ezinbestean ezarri behar dela adierazteko. Era berean, hori zuzenbideari egokitzen zaiola adierazi beharko da.

II. TITULUA

GESTIOAREN PROZEDURA ETA DIRU-LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

I. KAPITULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK, AZPI-KONTRATAZIOA ETA FINANTZAZIOA

32. artikulua. *Diruz lagun daitezkeen gastuak.*

1. Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira, zalantzarik gabe, diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak; eta diru-laguntzen, deialdien edo hitzarmenen oinarri berezitan ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagun daitezkeen gastuen eskuratze kostua inola ere ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa.

2. oinarri arautzaileetan, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean beste zerbait ezartzen ez bada, egindako gastutzat joko da, benetan, justifikatzeko aldia bukatu aurretik ordaintzen dena. Justifikazio aldia oinarri arautzaileetan, deialdian edo hitzarmenean zehaztuko da.

3. Obra exekuzioaren kostuen kasuan, diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa bada; eta ekipamenduko ondasunak hornitzeko kasuan, edo aholkularitza zein laguntza teknikoko enpresek eskaintzen dituzten zerbitzuen kasuan, gastua 12.000 eurotik gorakoa bada, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua eskaintzeko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik. Ez da horrelakorik egin beharko, diruz lagun daitezkeen gastuak bereziak direlako, merkatuan ondasuna hornitu edo zerbitzua eskainiko duten nahikoa erakunde ez badaude, edo gastua diru-laguntza eskatu aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen aukeraketa eraginkortasunezko eta ekonomiazko irizpideen arabera egingo da. Aukeraketa ekonomikoki egokiena den eskaintzaren aldekoa ez bada, hori berariaz aipatu beharko da txosten batean. Era berean, aurkeztutako eskaintzak justifikazioarekin batera, edo hala badagokio, diru-laguntzaren eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira.

4. Ondasun inbentariagarriak eskuratzeko, eraikitzeko, birgaitzeko eta hobetzeko honako arau hauek jarraituko dira:

a) que la cuantía de la subvención no exceda de 3.000 euros por una misma persona beneficiaria, una misma actividad y en un mismo ejercicio.

b) que por razón de las características de la persona física, jurídica o entidad que vaya a desarrollar la actividad, no sea posible promover la concurrencia pública por existir únicamente una persona beneficiaria o grupo de personas beneficiarias capacitado para realizar el objeto de la subvención.

En este caso será la propia resolución de concesión la que establecerá motivadamente las razones que justifiquen la excepción de la convocatoria en régimen de concurrencia, así como las condiciones, compromisos y la forma en que habrá de ser justificada la aplicación de los fondos percibidos por la persona beneficiaria o beneficiarias, de conformidad a lo establecido en esta Ordenanza.

En todo caso, se tramitará el correspondiente expediente de concesión de subvenciones, que deberá contener informe técnico que acredite la imposibilidad de promover la concurrencia competitiva y la necesidad de aplicación de este procedimiento excepcional, y con informe de su adecuación a derecho.

TITULO II

DEL PROCEDIMIENTO DE GESTIÓN Y JUSTIFICACIÓN DE LAS SUBVENCIONES

CAPITULO I. GASTOS SUBVENCIONABLES, SUBCONTRATACIÓN Y FINANCIACIÓN

Artículo 32. Gastos subvencionables.

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, y se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases específicas de las subvenciones, convocatorias o convenios. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

2. Salvo que las bases reguladoras, la convocatoria, convenio o resolución establezca algo diferente, se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación determinado en las bases reguladoras, la convocatoria o convenio.

3. Cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 30.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o de 12.000 euros en el supuesto de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la asunción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán apartarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

4. En el supuesto de adquisición, construcción, rehabilitación y mejora de bienes inventariables, se seguirán las siguientes reglas:

a) Oinarri arautzaileetan, deialdian edo hitzarmenean zehaztu egin beharko da, onuradunak zein epetan erabiliko dituen ondasun horiek, diru-laguntzak ezartzen duen xede zehatza betetzeko. Epea ez da bost urtetik beherakoa izango, erregistro publikoren batean inskriba daitezkeen ondasunentzat; gainerako ondasunentzat, berriz, epea ez da bi urtetik beherakoa izango.

Erregistro publikoetan inskriba daitezkeen ondasunak badira, gorabehera hau eskrituran jaso beharko da, baita emandako diru-laguntzaren zenbatekoa ere. Gorabehera hauek dago-kion erregistro publikoan inskribatu beharko dira.

b) Goiko paragrafoan adierazitako xedea betetzen ez bada, diru-laguntza itzuli egin beharko da, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako baldintzetan. Xedea ez da beteko, nolana ere, ondasuna besterentzen bada edo ondasuna baime-nik gabe kargatzen bada. Horiek horrela, ondasuna, itzuli behar-rekoa ordaintzeko obligazioari lotuta geratuko da, jabea edozein dela ere. Hori ez da gertatuko, jabea erregistroko fede publikoak babestutako hirugarrengo bat bada, ondasunak fede onez eta titulu zuzenez eskuratu zirela justifikatzen badira, edo inskriba ez daitezkeen ondasun higigarriak merkataritza edo industria establezimendu batean eskuratu zirela justifikatzen bada.

5. Honako kasu hauetan ez da aurreko 4. paragrafoan zehaztutako xedearen bete beharra bete gabekotzat joko:

a) Erregistro publiko batean inskriba ezin daitezkeen ondasunak badira, eta antzeko baldintzetan, diru-laguntzaren xedea betetzeko erabil daitezkeen beste ondasun batzuekin ordezkatzeko badira, eta erabilera hori ezarritako epea bukatu arte mantentzen bada; baldin eta diru-laguntza ematen duen Administrazioak ordezkapen horretarako baimena ematen badu.

b) Erregistro publikoren batean inskriba daitezkeen ondasunak badira, xedea aldatzeko, ondasuna besterentzeko edo kargatzeko baimena diru-laguntza ematen duen Administrazioak ematen badu. Kasu honetan, eskuratzailerak ondasunen xedea bete beharko du gelditzen den aldirako, eta xedea betetzen ez badu, diru-laguntza itzuli beharko du.

6. Amortizazio gastuak ere diruz lagun daitezkeenak izango dira, baldin eta honako baldintza hauek ematen badira:

a) Diru-laguntzak ondasunak erosteko lagungarri ez izatea.

b) Amortizazioa guztiek onartutako kontabilitate arauen arabera kalkulatzeko.

c) Kostua diruz lagun daitezkeen aldiari dagokiona soilik izatea.

7. Finantza gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioraren gastuak, notaritzako eta erregistroko gastuak, diruz lagundutako proiektua burutzeko adituen gastuak eta administrazioeko gastu bereziak diruz lagun daitezkeenak izango dira, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzeneko lotura badute, eta jarduera ongi prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak badira.

Honako gastu hauek inola ere ezingo dira diruz lagundu:

a) Bankuko kontuetako interes zordunak.

b) Interesak, gainkarguak, eta administrazio eta zigor arloko zehapenak.

c) Prozedura judizialei dagozkien gastuak.

d) Tokiko zergak, baldin eta legeak aurreikusitako zerga salbuespenak edo tokiko haziendarekiko zorrak gutxitzea suposatzen badute.

a) Las bases reguladoras, la convocatoria o convenio fijarán el período durante el cual la persona beneficiaria deberá destinar los bienes al fin concreto para el que se concedió la subvención, que no podrá ser inferior a cinco años en caso de bienes inscribibles en un registro público, ni a dos años para el resto de bienes.

En el caso de bienes inscribibles en un registro público, deberá hacerse constar en la escritura esta circunstancia, así como el importe de la subvención concedida, debiendo ser objeto estos extremos de inscripción en el registro público correspondiente.

b) El incumplimiento de la obligación de destino referida en el párrafo anterior, que se producirá en todo caso con la enajenación o el gravamen no autorizado del bien, será causa de reintegro, en los términos establecidos en la Ley General de Subvenciones, quedando el bien afecto al pago del reintegro cualquiera que sea su poseedor, salvo que resulte ser un tercero protegido por la fe pública registral o se justifique la adquisición de los bienes con buena fe y justo título o en establecimiento mercantil o industrial, en caso de bienes muebles no inscribibles.

5. No se considerará incumplida la obligación de destino referida en el anterior apartado 4 cuando:

a) Tratándose de bienes no inscribibles en un registro público, fueran sustituidos por otros que sirvan en condiciones análogas al fin para el que se concedió la subvención y este uso se mantenga hasta completar el período establecido, siempre que la sustitución haya sido autorizada por la Administración concedente.

b) Tratándose de bienes inscribibles en un registro público, el cambio de destino, enajenación o gravamen sea autorizado por la Administración concedente. En este supuesto, la persona adquirente asumirá la obligación de destino de los bienes por el período restante y, en caso de incumplimiento de la misma, del reintegro de la subvención.

6. Podrán tener carácter subvencionable los gastos de amortización, siempre que se den las siguientes condiciones:

a) Que las subvenciones no hayan contribuido a la compra de los bienes.

b) Que la amortización se calcule de conformidad con las normas de contabilidad generalmente aceptadas.

c) Que el coste se refiera exclusivamente al período subvencionable.

7. Los gastos financieros, los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración específicos serán subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la misma.

En ningún caso se considerarán gastos subvencionables:

a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

c) Los gastos de procedimientos judiciales.

d) Los tributos locales, en cuanto supongan exenciones fiscales no previstas en la ley, compensaciones o aminoraciones de deudas contraídas con la hacienda local.

8. Zergak ez dira diruz lagun daitezkeen gastuak izango, baldin eta diru-laguntzaren onuradunak zuzenean ordaintzen baditu. Honako gastu hauek inola ere ezingo dira diruz lagundu:

a) Zeharkako zergak, baldin eta horiek berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera badago.

Hain zuzen ere, Balio Erantsiaren Gaineko Zergari dago-kionez, honako hauek baino ez dira izango diruz lagun daitez-keen gastuak: Onuradunak ordaindu eta gastu erreala dakarten zenbatekoak. Hau da, zenbateko hori, benetan, onuradunak ordaindutakoa izan beharko du, eta ez da kengarria izango; izan ere, kengarria izatekotan, onuradunak zerga berreskuratzeko aukera izango luke, eta onuradunak hori sinesgarritasun osoz justifikatu beharko luke.

b) Errentaren gaineko zerga pertsonalak.

9. Onuradunak diruz lagundutako jarduerari egotziko diz-kiro zeharkako kostuak, horri zentzuz dagokion zatian, eta guz-tiek onartutako kontabilitate printzipioen eta arauen arabera. Edonola ere, kostu horiek, benetan, jarduera burutzen den aldiari dagozkionak izan beharko dute.

33. artikulua. Azpi-kontratazioa.

1. Onuradun batek azpi-kontratu bat egiten duela uste izango da, diru-laguntzaren xede den jardueraren exekuzioa, osorik edo zatika, beste batzuekin hitzartzen badu. Kontzeptu honetatik kanpo geratuko dira, onuradunak diruz lagundutako jarduera berez egiteko egin behar dituen gastuak.

1. Emakidari buruzko ebazpena baliogabetzeko honako arrazoi hauek izango dira:

Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1 artikuluan adierazitakoak.

Krediturik ez egotea, edo kreditua nahikoa ez izatea; Aurrekontuei Buruzko Lege Orokorraren 60. artikuluan ezarritakoaren eta aurrekontuaren arloko gainerako araudiaren arabera.

2. Emakidari buruzko ebazpena deuseztatzeko arrazoiak izango dira antolamendu juridikoan egiten diren gainerako arau-haustek, eta bereziki, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean jasotako arauen haustek, aldeztetik aipatutako 30/1992 Legearen 63. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Emakida egintza aurreko paragrafoetan aipatutako kasuren batean sartzen baldin bada, organo emaileak emakida ofizioz berraztertuko du edo, hala badagokio, emakida kaltegarritzat joko du, eta ondoren, inpugnatu egingo du, Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 102 eta 103 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4. Emakida deuseztatzeko aitorpen judiziala edo administratiboa egiten bada, jasotako diru-kopuruak itzuli egin beharko dira.

5. Ez da bidezkoa izango emakida egintza ofizioz berraztertzea, ondoren aipatuko den artikuluan jasotako itzultzeko arrazoiaren bat gertatzen bada.

2.º— A la emisión por el Área municipal gestor, de la conformidad o informe, en su caso, en el que se constate el cumplimiento, desde un punto de vista material, del objeto de la subvención.

En dicho informe ha de constar la aportación municipal y, en su caso, el resto de recursos de que ha dispuesto la persona beneficiaria, datos que deberán reflejarse por dicha persona beneficiaria en la memoria de actuación.

Igualmente, dicho informe contendrá una valoración de la justificación de gastos e ingresos presentada por la persona beneficiaria.

3.º— A la remisión del expediente completo a la Intervención Municipal, a los efectos de la emisión del correspondiente informe de fiscalización. Esta fiscalización tendrá el alcance derivado de la intervención previa limitada, y comprenderá, además, la comprobación de la existencia del informe de conformidad referente a la justificación presentada.

2. Dicha justificación, una vez fiscalizada, deberá ser aprobada por el órgano competente, que será el que concedió la subvención.

3. En el caso de establecerse pagos a cuenta de las subvenciones que tendrán la consideración de pagos fraccionados sólo por el importe igual a la cuantía equivalente de la justificación presentada, dicha justificación deberá efectuarse de forma similar a la prevista para la totalidad de la subvención y con los requisitos previstos en cuanto a justificación en la presente normativa.

TÍTULO III

REINTEGROS

CAPITULO I. DEL REINTEGRO DE SUBVENCIONES

Artículo 47. Invalidez de la resolución de la concesión de subvención.

1. Son causas de nulidad de la resolución de concesión:

Las indicadas en el artículo 62.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La carencia o insuficiencia de crédito, de conformidad con lo establecido en el artículo 60 de la Ley General Presupuestaria y demás normativa presupuestaria.

2. Son causas de anulabilidad de la resolución de concesión las demás infracciones del ordenamiento jurídico, y en especial, de las reglas contenidas en la Ley General de Subvenciones, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 63 de la Ley 30/1992 antes citada.

3. Cuando el acto de concesión incurra en alguno de los supuestos mencionados en los apartados anteriores, el órgano concedente procederá a su revisión de oficio o, en su caso, a la declaración de lesividad y ulterior impugnación, de conformidad con lo establecido en los artículos 102 y 103 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4. La declaración judicial o administrativa de nulidad o anulación llevará consigo la obligación de devolver las cantidades percibidas.

5. No procederá la revisión de oficio del acto de concesión cuando concurra alguna de las causas de reintegro contempladas en el artículo siguiente.

48. artikulua. *Ordainketak itzultzeko eta atxikitzeko arrazoiak.*

1. Jarraian zehaztuko diren kasuetan, jasotako diru-kopuru osoa edo jasotakoaren zati bat itzuli beharko da. Horretaz gain, diru-laguntza eman den unetik, diru-laguntza itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte sortu diren berandutza interesak eskatu ahal izango dira:

a) Diru-laguntza lortzeko, eskatutako baldintzak faltsutu badira, edo diru-laguntza eskuratzea ezinezkoa egingo luketen baldintzak ezkututzen badira.

b) Diru-laguntzaren emakidan ezarritako helburua, jarduera edo proiektua betetzen ez badira, edo diru-laguntzaren emakidaren oinarrian jasotzen den jarrera ez hartzen ez bada.

c) Justifikatzeko obligazioa ez betetzea edo behar bezala ez justifikatzea.

d) Finantza egoera konprobatzeko eta kontrolatzeko jardueri aurka egitea, horiek ez egiteko aitzakiak jartzea edo horiei uko egitea. Era berean, kontabilitatea eramateko, erregistroan inskribatzeko eta dokumentuak gordetzeko obligazioak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz, jasotako diruak nola erabili diren egiaztatzea ezinezkoa bada. Diruz lagundutako jardueren xedea, benetakotasuna eta erregularitasuna ez betetzea, edo jasotako diru-laguntzarekin batera, edozein Administrazioi edo erakunde publiko edo pribatuk emandako diru-laguntzak jasotzea.

e) Administrazioak onuradunei edo erakunde laguntzaileei ezarritako obligazioak eta beraiek hartutako konpromisoak ez betetzea, baldin eta diru-laguntza emateko erabakia oinarritzen duten helburuak lortzeko, jarduerak egiteko, proiektua burutzeko edo jarrera hartzeko moduari eragiten badiete.

f) Administrazioak onuradunei edo erakunde laguntzaileei ezarritako obligazioak, eta emandako diru-laguntzaren ondorioz, beraiek hartutako konpromisoak, arestian aipatu ez direnak, ez betetzea, baldin eta jasotako dirua zertan erabili den egiaztatzea ezinezkoa bada; edo diru-laguntza emateko erabakia oinarritzen duten helburuak lortu, jarduerak egin, proiektua burutu edo jarrera hartu den ala ez egiaztatzea ezinezkoa bada; edo jasotako diru-laguntzarekin batera, helburu berberarekin, edozein Administrazioaren edo erakunde publiko edo pribatuen baten diru-laguntza, laguntza, sarrera edo bitartekoren bat eskuratu bada.

g) Udal honek diruz lagundu dituen jardueraren publizitateko eta dokumentazioaren zabalkunderako jarri diren neurriak betetzeko obligazioa ez betetzea, betiere, baldintza hori ezarri den ustezkoetan.

h) Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aurreikusitako gainerako ustezkoetan.

2. Onuradunaren, edo hala badagokio, erakunde laguntzailearen betetze maila, hein handi batean, betetze-maila osora hurbiltzen bada, eta onuradunak nahiz erakunde laguntzaileak, inolako zalantzarik gabe, beraien konpromisoak betetzeko joera dutela egiaztatzen baldin bada, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, proportzionaltasunaren irizpidea aplikatuko da. Horrela bada, onuradunak, diruz lagundutako betetze mailaren portzentajearen parekoa den diru-laguntzaren portzentajea jasoko du. Erabaki hori organo emaileak hartuko du, dagokion espedienteari hasiera eman ondoren.

3. Era berean, diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide bat baino gehiago jasotzen bada, eta horiek diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen badute, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gaineratik eskuratutako zenbatekoa itzuli beharko da. Horretaz gain, dagokion berandutza interesa eskatuko da.

Artículo 48. *Causas de reintegro y retención de pagos.*

1. Procederá el reintegro total o parcial de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención, hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los siguientes casos:

a) Obtención de subvención falseando las condiciones requeridas u ocultando aquellas que lo hubiesen impedido.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente.

d) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados.

e) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades colaboradoras y beneficiarias/os, así como los compromisos por éstos asumidos, siempre que afecten o se refieran al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

f) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades colaboradoras y beneficiarias/os, así como los compromisos por éstos asumidos con motivo de la concesión de la subvención, distintos de los anteriores, cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados.

g) Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de publicidad y difusión en la documentación y propaganda de que la actividad se halla subvencionada por este Ayuntamiento, en los casos en que se hubiese impuesto dicha condición.

h) En los demás supuestos previstos en la Ley General de Subvenciones.

2. Cuando el cumplimiento por la persona beneficiaria o, en su caso, entidad colaboradora se aproxime de modo significativo al cumplimiento total y se acredite por éstos una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos, la cantidad a reintegrar vendrá determinada por la aplicación del criterio de proporcionalidad, de modo que la persona beneficiaria percibirá el tanto porcentual de la subvención equivalente al tanto porcentual de cumplimiento de la actividad subvencionada que se determine, previa incoación del correspondiente expediente, por el órgano concedente.

3. Igualmente, en el supuesto de concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que superen el coste de la actividad subvencionada, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.

4. Diru-laguntza ordaindu den egunetik diru-laguntza itzultzeko erabakia hartzen den egunera arteko berandutza interesa eskatuko da. Ezar daitekeen berandutza interesa diruaren interes legala izango da, diru-laguntza ordaintzen den egunean indarrean dagoena, eta ehuneko 25 gehituta; urte bakoitzerako Estatuko Aurrekontuen Legeak beste interes bat ezarri ezean.

5. Ez dira diru-laguntzak itzuli behar izango, dagozkion justifikazioak epez kanpo aurkezte hutsagatik; betiere, emandako epea bukatu eta sei hilabete igaro ez badira; hala ere, ezin izango dira diru-laguntzak jaso dagozkion justifikazioak aurkezten ez diren artean.

49. artikulua. Itzuli beharreko kredituaren izaera.

1. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko sarreretat hartuko dira, eta horiek kobratzeko Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrean aurreikusitakoa ezarriko da.

2. Jasotako zenbatekoa itzultzeaz gain, berandutza interesa ere eskatu ahal izango da. Ezar daitekeen berandutza interesa diruaren interes legala izango da, ehuneko 25 gehituta, urte bakoitzeko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak beste interes bat ezarri ezean. Berandutza interesak diru-laguntza ordaindu zen unetik, diru-laguntza hori itzultzea erabakitzen den egunera arte ordaindu beharko dira.

3. Diru-laguntzak itzultzeko eskaeren prozedurek izaera administratiboa izango dute beti.

50. artikulua. Preskripzioa.

Lau urtera preskribituko da Administrazioak itzulera onartzeko edo zurrizko duen eskubidea. Epea zenbatzeko eta preskripzioa eteteko, Aurrekontuei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 39. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

51. artikulua. Itzultzeko betebeharra dutenak.

1. Onuradunek eta erakunde laguntzaileek, Aurrekontuei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan aurreikusitako ustezkoetan, diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli beharko dute. Horri berandutza interesak gehitu beharko dizkiote. Obligazio honetaz gain, hala badagokio, eska daitezkeen zigorrak ezarri ahal izango dira.

2. Onuradunak, diruz lagundutako jarduerak egiteko konpromisoa hartu duelako, diru-laguntza itzultzeko obligazioa badu, Ordenantza honen 9. artikuluan 2. atalean eta 3. atalaren 2. paragrafoan aipatutako pertsonen eta erakundeen kideek obligazio horren gaineko erantzukizun solidarioa izango dute.

Pertsona onuradunak jarduteko gaitasunik ez badu, horren ordezkaririk legalek diru-laguntza itzultzeko erantzukizun solidarioa izango dute.

3. Honako hauek diru-laguntza itzultzeko erantzukizun subsidiarioa izango dute: Merkataritzako sozietateen administrazioen edo beste pertsona juridiko batzuen lege-ordezkaritza dutenak, baldin eta pertsona horiek, beraien ardurapekoa izanik, hautsitako obligazioak betetzeko beharrezko egintzak egiten ez badituzte. Horiek bete gabeko obligazioak ahalbideratuko dituzten akordioak hartu beharko dituzte, edo horien menpekoena onartu beharko dute.

Era berean, beraien jarduera eten duten pertsona juridikoen lege-ordezkaritza dutenak, nolana ere, pertsona horiek diru-laguntza itzultzeko duten obligazioaren gaineko erantzukizun subsidiarioa izango dute ezar daitezkeen lege- edo estatutu-xedapenen arabera.

4. El interés de demora se exigirá desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde el reintegro de la misma. El interés de demora aplicable será el interés legal del dinero, vigente en el momento del pago de la subvención, incrementado en un 25 por ciento, salvo que la Ley de Presupuestos del Estado de cada año establezca otro diferente.

5. No procederá el reintegro de las subvenciones por la mera presentación fuera de plazo de las correspondientes justificaciones siempre que no transcurran más de seis meses desde la finalización del plazo concedido, no obstante no se podrán percibir subvenciones hasta la presentación de las correspondientes justificaciones.

Artículo 49. Naturaleza del crédito a reintegrar.

1. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público, resultando de aplicación para su cobranza lo previsto en la Ley General Presupuestaria.

2. El reintegro de las cantidades percibidas llevará aparejada la exigencia del interés de demora, que será el interés legal del dinero incrementado en un 25 por ciento, salvo que la Ley de Presupuestos Generales del Estado establezca otro diferente, desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro.

3. Los procedimientos para la exigencia del reintegro de las subvenciones, tendrán siempre carácter administrativo.

Artículo 50. Prescripción.

Prescribirá a los cuatro años el derecho de la Administración a reconocer o liquidar el reintegro. El cómputo del plazo y la interrupción de la prescripción se regirán por lo dispuesto en el artículo 39 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 51. Personas obligadas al reintegro.

1. Las personas beneficiarias y entidades colaboradoras en los supuestos contemplados en el artículo 37 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, deberán reintegrar la totalidad o parte de las cantidades percibidas más los correspondientes intereses de demora. Esta obligación será independiente de las sanciones que, en su caso, resulten exigibles.

2. Las personas y las personas que sean miembros de las entidades contempladas en el apartado 2 y en el segundo párrafo del apartado 3 del artículo 9 de esta Ordenanza responderán solidariamente de la obligación de reintegro de la persona beneficiaria con relación a las actividades subvencionadas que se hubieran comprometido a efectuar.

Responderán solidariamente de la obligación de reintegro los representantes legales de la persona beneficiaria cuando ésta careciera de capacidad de obrar.

3. Responderán subsidiariamente de la obligación de reintegro las/los administradoras/os de las sociedades mercantiles, o aquellas/os que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, que no realizasen los actos necesarios que fueran de su incumbencia para el cumplimiento de las obligaciones infringidas, adoptasen acuerdos que hicieran posibles los incumplimientos o consintieran el de quienes de ellas/os dependan.

Asimismo, las personas que ostenten la representación legal de las personas jurídicas, de acuerdo con las disposiciones legales o estatutarias que les resulten de aplicación, que hayan cesado en sus actividades responderán subsidiariamente en todo caso de las obligaciones de reintegro de éstas.

4. Indargabetutako eta likidatutako sozietateen edo erakundeen kasuan, diru-laguntza itzultzeko obligazioa oraindik bete ez bada, kapitalean partaidetza duten bazkide edo partaideengana igaroko da obligazio hori. Horiek obligazio horren gaineko erantzukizun solidarioa izango dute, esleitu zaien likidazio kuotari dagokion zenbatekoaren mugarekin.

5. Diru-laguntza itzultzeko obligazioa duena hiltzen bada, itzultzeke dauden zenbatekoak ordaintzeko obligazioa bere kausadunengana igaroko da. Horretaz gain, hainbat ustezkotan, eta bereziki, herentzia inbentario-onuraren arabera onartu behar den ustezkoetan, aplikatu daitezkeen zuzenbide zibilean ezarritako dagoena izango da kontuan.

II. KAPITULUA. DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEKO PROZEDURA

52. artikulua. Itzulketarako prozedura.

1. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VI. Tituluan jasotako xedapen orokorrei jarraiki arautuko da. Horretaz gain, Diru-Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritako xedapen bereziak ere izango dira kontuan.

2. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak dagokion akordioa hartu ostean. Akordioa organoaren ekimenez edo Epaimahai Kalifikatzaileak, diru-laguntzaren emakida izapidetu duen Organoak edo Udalaren Osoko Bilkurak hala eskatuta hartuko da. Era berean, salaketa baten ondorioz, edo Kontu-hartzaileak nahiz funtzio hori ematen zaion organoak egindako kontrol eta fiskalizazio txostenaren ondorioz ere hartu ahal izango da.

3. Behin diru-laguntza itzultzeko prozedurari hasiera ematea erabaki ostean, kautelazko neurri gisa, organo emaileak erabakia har dezake, pertsona onuradunari edo erakunde laguntzaileari ordaintzeke dauden zenbatekoak ordaintzeko aginduak eteteko. Dena dela, inola ere ezin izango da gainditu itzulera espedienteari hasiera emateko proposamenean edo ebazpenean zehaztutako zenbatekoa. Horri une horretara arte sortutako berandutza interesak gehituko zaizkio.

Kautelazko neurri hori ezartzeko erabakia arrazoituta ebazpenaren bidez hartu beharko da. Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, eta bertan, aurkez daitezkeen errekurtsioen berri emango da.

Horrela bada, bidezkoa izango da ordainketa etetea, ordaina jasotzea ezinezkoa izango dela aurreikusten duten arrazoizko zantzuak baldin badaude, edo ordaina jasotzea zapuzten bada edo ordaina jasotzea oso zaila gertatzen bada, eta bereziki, diru-laguntza jasotzen duen pertsonak bere ondasunak ezkatutzeko, kargatzeko edo erabiltzeko ekintzak egiten baditu.

Aurreko kasu guztietan, ordainketak eteteko honako araubide juridiko hau jarraitu beharko da:

a) Proporzionala izan behar du lortu nahi den helburuarekiko, eta inola ere ez da atxikitzeko erabakia hartuko, konponitzeko zailak edo konponezinak diren eraginak sortu ahal baditu.

b) Etendura mantendu egingo da espedienteari amaiera emango dion ebazpena eman arte. Atxikipenak ezin izango du gainditu tramitaziorako ezarritako den gehienezko epea, luzapenak barne.

c) Arestian adierazitako paragrafoan ezarritakoaz gain, etendura utzi egin beharko da hori sorrarazi duten gorabeherak desagertzen direnean, edo bestela, interesdunak, kautelazko neurri horren ordean, nahikotzat joko den bermea jartzeko proposamena egiten duenean.

4. En el caso de sociedades o entidades disueltas y liquidadas, sus obligaciones de reintegro pendientes se transmitirán a las/los socios/os o partícipes en el capital que responderán de ellas solidariamente y hasta el límite del valor de la cuota de liquidación que se les hubiera adjudicado.

5. En caso de fallecimiento de la persona obligada al reintegro, la obligación de satisfacer las cantidades pendientes de restitución se transmitirá a sus causahabientes, sin perjuicio de lo que establezca el derecho civil aplicable a la sucesión para determinados supuestos, en particular para el caso de aceptación de la herencia a beneficio de inventario.

CAPITULO II. PROCEDIMIENTO DE REINTEGRO

Artículo 52. Procedimiento de reintegro.

1. El procedimiento de reintegro de subvenciones se regirá por las disposiciones generales sobre procedimientos administrativos contenidas en el Título VI de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de las especialidades establecidas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2. El procedimiento de reintegro de subvenciones se iniciará de oficio por acuerdo del órgano competente, por su propia iniciativa, a solicitud del Tribunal Calificador, del Órgano Instructor de la concesión de la subvención, del Ayuntamiento en Pleno, por denuncia, o como consecuencia del informe de control y fiscalización emitido por la Intervención de Fondos o el órgano al que se encomiende esta función.

3. Una vez acordado el inicio del procedimiento de reintegro, como medida cautelar, el órgano concedente puede acordar la suspensión de los libramientos de pago de las cantidades pendientes de abonar a la persona beneficiaria o entidad colaboradora, sin superar, en ningún caso, el importe que fijen la propuesta o resolución de inicio del expediente de reintegro, con los intereses de demora devengados hasta aquel momento.

La imposición de esta medida cautelar debe acordarse por resolución motivada, que debe notificarse a la persona interesada, con indicación de los recursos pertinentes.

En todo caso, procederá la suspensión si existen indicios racionales que permitan prever la imposibilidad de obtener el resarcimiento, o si éste puede verse frustrado o gravemente dificultado, y, en especial, si la persona perceptora hace actos de ocultación, gravamen o disposición de sus bienes.

La retención de pagos estará sujeta, en cualquiera de los supuestos anteriores, al siguiente régimen jurídico:

a) Debe ser proporcional a la finalidad que se pretende conseguir, y, en ningún caso, debe adoptarse si puede producir efectos de difícil o imposible reparación.

b) Debe mantenerse hasta que se dicte la resolución que pone fin al expediente de reintegro, y no puede superar el período máximo que se fije para su tramitación, incluidas prórrogas.

c) No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, debe levantarse cuando desaparezcan las circunstancias que la originaron o cuando la persona interesada proponga la sustitución de esta medida cautelar por la constitución de una garantía que se considere suficiente.

4. Prozedura tramitatzerako orduan, une oro, interesdunak entzunaldia egiteko duen eskubidea bermatuko da. Onuradunari jakinarazi egin beharko zaio prozedurari hasiera eman zaiola. Honek 15 eguneko epea izango du, jakinarazpena jasotzen duenetik hasita, bere eskubideak babesteko egoki irizten diona alegatzeko edo edozein motatako dokumentazioa aurkezteko. Jakinarazpena posta zertifikatu bidez egingo da, eta eskabidean jarritako helbidera bidaliko da. Jakinarazpena ematea ezinezkoa bada, edo jakinarazpena emateko bi saiakera egiten badira, ebazpena, akordioa edo dekretua argitaratuko da Udaletxeko iragarki taulan, hamar egunez. Epe hori igaro ondoren, jakinarazitza emango da prozedurari hasiera eman zaiola, eta alegazioak edo dokumentuak aurkezteko eman den hamar eguneko epea abian jarriko da.

5. Aurkeztutako alegazioak edo dokumentuak aurkeztu eta gero; edo emandako epea igarota, alegaziorik edo dokumenturik aurkeztu ez bada, organo emaileak dekretu, akordio edo ebazpen bat emango du, administrazio bideari amaiera ematen diona. Bertan egoki irizten diona aginduko du.

6. Organo emaileak eskumena izango du diru-laguntza itzultzeko prozedura ebazteko. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, 12 hilabetekoa izango da, hasiera emateko akordioa hartzen den egunetik aurrera. Epe hori eten edo luzatu ahal izango da Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua 5 eta 6 artikuluen aurreikusitakoaren arabera.

Ebazpena emateko epea bukatu, eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da. Dena dela, jarduerak prozedura bukatu arte jarraituko dute, eta epe hori bukatu arte, ez da egindako jardueren preskripzioa etengo.

7. Diru-laguntza itzultzeko obligazioa dutenek, dagokion ebazpenean xedatuko denari jarraiki, jasotako zenbatekoa osorik edo jasotakoaren zati bat itzuli beharko dute. Horri berandutza interesak gehituko zaizkio. Obligazio honek ez du loturarik izango hala badagokio eska litezkeen zigorrekin.

Azkenean onuradunak itzuli beharko duen zenbatekoa zehazteko, kontuan izan beharko dira obligazioak bete ez izana graduatzeko irizpideak. Arestian aipatutakoari dagokionez, irizpideek, nolana ere, proportzionaltasun printzipioa bete beharko dute.

8. Diru-laguntza itzultzeko prozedurari buruzko ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari.

IV. TITULUA

DIRU-LAGUNTZEN FINANTZA-KONTROLA

53. artikulua. *Finantza kontrolaren helburua.*

1. Udalak emandako diru-laguntzak direla eta, Kontu-hartzailetza Sailaren bitartez, emandako diru-laguntzen finantza-kontrola ezarriko zaie onuradunei, eta hala badagokio, erakunde laguntzaileei ere bai:

2. Diru-laguntzen finantza-kontrolaren helburua izango da honako hau egiaztatzea:

a) Diru-laguntza modu egokian eta zuzenean lortu dela egiaztatzea.

b) Onuradunek jasotako dirua gestionatu eta erabiltzearen ondorioz jarritako obligazioak bete dituztela.

c) Diru-laguntza modu egokian eta zuzenean justifikatu dela egiaztatzea.

4. En la tramitación del procedimiento se garantizará en todo caso el derecho de la persona interesada a la audiencia. El inicio del procedimiento se notificará a la persona beneficiaria que tendrá un plazo de 15 días desde la recepción de la notificación para alegar aquello que estime conveniente para su derecho o para aportar cualquier tipo de documentación. La notificación se realizará mediante correo certificado a la dirección que conste en la solicitud. Si no fuera posible la entrega de la notificación, o intentada la misma por dos veces, la resolución, acuerdo o decreto se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento por un periodo de diez días, transcurrido el cual se entenderá notificado el inicio del procedimiento y empezará a correr el plazo de diez días para presentar alegaciones o documentos.

5. Estudiadas las alegaciones o documentos presentados, o transcurrido el plazo citado sin que se presenten los mismos, el órgano concedente emitirá un decreto, acuerdo o resolución, que pone fin a la vía administrativa, ordenando lo que estime procedente.

6. El órgano concedente será el competente para la resolución del procedimiento de reintegro. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de 12 meses desde la fecha del acuerdo de iniciación. Dicho plazo podrá suspenderse o ampliarse de acuerdo con lo previsto en los apartados 5 y 6 del artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Si transcurre el plazo para resolver sin que se haya notificado resolución expresa, se producirá la caducidad del procedimiento, sin perjuicio de continuar las actuaciones hasta su terminación y sin que se considere interrumpida la prescripción por las actuaciones realizadas hasta la finalización del citado plazo.

7. Las personas obligadas al reintegro deberán reintegrar, según se establezca en la correspondiente resolución, la totalidad o parte de las cantidades percibidas, más los correspondientes intereses de demora. Esta obligación será independiente de las sanciones que, en su caso, pudieran resultar exigibles.

Para determinar la cantidad que finalmente haya de reintegrar la persona beneficiaria, deberá atenderse a los criterios de graduación del incumplimiento que, en orden a lo anterior, resulten del expediente, debiendo responder, en todo caso, al principio de proporcionalidad.

8. La resolución del procedimiento de reintegro pondrá fin a la vía administrativa.

TÍTULO IV

DEL CONTROL FINANCIERO DE LAS SUBVENCIONES

Artículo 53. *Finalidad del control financiero.*

1. El control financiero de las subvenciones se ejercerá respecto de las personas beneficiarias y, en su caso, entidades colaboradoras por razón de las subvenciones del Ayuntamiento a través de su Departamento de Intervención.

2. El control financiero de subvenciones tendrá como objeto verificar:

a) La adecuada y correcta obtención de la subvención.

b) El cumplimiento por parte de las personas beneficiarias de las obligaciones en la gestión y aplicación de los fondos recibidos.

c) La adecuada y correcta justificación de la subvención.

d) Aurkeztu den justifikazioaren arabera, diru-laguntzarekin finantzatu diren jardueren benetakotasuna eta erregularatasuna.

e) Diruz lagundutako jarduerak modu egokian eta zuzenean finantzatu direla; diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza; laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, inola ere, diruz lagundutako jardueraren aurrekontua baino handiagoa izan ez dadin.

f) Diruz lagundutako jardueraren finantzazioari; diru-laguntza era egokian eta zuzenean lortzeari; erabiltzeari; gozatzeari edo justifikatzeari; eta diru-laguntzaren bidez finantzatutako jardueren benetakotasunari edo erregularitasunari eragin diezaioketen gertaerak, gorabeherak edo egoerak gertatu diren ala ez.

2. Arestiko paragrafoan adierazitakoa betetzeko, finantza-kontrola honako hauetaz osatuko da:

a) Kontabilitateko erregistroen, kontuen edo finantzako egoera-orrien eta horien euskarri den dokumentazioa aztertzea.

b) Emandako diru-laguntzekin zerikusia duten edo diru-laguntzari eragin diezaioketen banakako jarduera zehatzak aztertzea.

c) Elkarren arteko zerikusia duten edo emandako diru-laguntzei eragin diezaioketen hainbat ekintzaren arlo partzialak eta zehatzak egiaztatzea.

d) Finantzatutako inbertsioen egiaztatze materiala.

e) Kasu bakoitzerako diru-laguntza arautzen duen araudian, lankidetzaren hitzarmenean, edo hala badagokio, emakidaren ebazpenean ezarritakoaren arabera, kontrolerako burutu beharreko jardura zehatzak.

f) Diruz lagundutako jardueren ezaugarri bereziak kontuan izanik, beharrezkoak diren bestelako egiaztapenak.

3. Onuradunak, eta hala badagokio, erakunde laguntzaileak kontrolerako araubide honen pean geratuko dira. Laguntza eskaintzeko, eta organo eskudunak funtzio horiek betetzerakoan eskatzen duen dokumentazio guztia emateko obligazioa izango dute, baldin eta dokumentazio hori Administrazio honen esku ez badago. Hori dela eta, bere langileek Diru-Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako ahalmenak eta betebeharrak izango dituzte.

Obligazio hau betetzeari ezetz esaten bazaio, uste izango da kontrol jarduerak egiteko zailtasunak, aitzakiak eta oztopoak jartzen direla, edo kontrol jarduerak egiteari ezetz esaten diotela. Hori diru-laguntza itzultzeko arrazoia izan daiteke, ordenantza honetan aurreikusitako eraginak betetzeko. Horretaz gain, bidezkoa bada, dagozkion zigorrak jarriko dira.

4. Finantza-kontrolak onuradunekin bat egin duten pertsona fisikoei edo juridikoei eragin ahal izango die, baita helburuak betetzeko, jarduerak egiteko, proiektuak burutzeko edo jarrerak hartzeko interesa erakutsi ahal izan duen beste edozein pertsonari ere.

54. artikulua. Lankidetzarako obligazioa.

1. Onuradunek edo diru-laguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten gainerakoek kontrolerako laguntza eskaini beharko dute, eta Kontu-hartzailetza Sailak, berari dagozkion kontrol funtzioak betetzerakoan, eskatzen dizkien dokumentu guztiak eman beharko dituzte. Horrela bada, Kontu-hartzailetzak honako eskumen hauek izango ditu:

d) La realidad y regularidad de las operaciones que de acuerdo con la justificación presentada han sido financiadas con la subvención.

e) La adecuada y correcta financiación de las actividades subvencionadas a fin de controlar que el importe de las subvenciones en ningún caso sea de cuantía tal que, aislada o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

f) La existencia de hechos, circunstancias o situaciones no declaradas que pudieran afectar a la financiación de la actividad subvencionada, a la adecuada y correcta obtención, utilización, disfrute o justificación de la subvención, así como a la realidad y regularidad de las operaciones con ella financiadas.

2. A los efectos del apartado anterior, el control financiero podrá consistir en:

a) El examen de registros contables, cuentas o estados financieros y la documentación que los soporte.

b) El examen de operaciones individualizadas y concretas relacionadas o que pudieran afectar a las subvenciones concedidas.

c) La comprobación de aspectos parciales y concretos de una serie de actos relacionados o que pudieran afectar a las subvenciones concedidas.

d) La comprobación material de inversiones financiadas.

e) Las actuaciones concretas de control que deban realizarse conforme con lo que en cada caso establezca la normativa reguladora de la subvención, bases reguladoras, convenio de colaboración o, en su caso, la resolución de concesión.

f) Otras comprobaciones que resulten necesarias en atención a las características especiales de las actividades subvencionadas.

3. Estarán sometidos a este régimen de control las personas beneficiarias y, en su caso, las entidades colaboradoras, quedando obligadas a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación que no obre en poder de esta Administración sea requerida en el ejercicio de las referidas funciones por el órgano competente, a cuyo fin, su personal, tendrá las facultades y deberes previstos en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

La negativa al cumplimiento de esta obligación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa y podrá ser causa de reintegro a los efectos previstos en esta ordenanza, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

4. El control financiero podrá extenderse a las personas físicas o jurídicas a las que se encuentren asociadas las personas beneficiarias, así como a cualquier otra persona susceptible de presentar un interés en la consecución de los objetivos, en la realización de las actividades, en la ejecución de los proyectos o en la adopción de los comportamientos.

Artículo 54. Obligación de colaboración.

1. Las personas beneficiarias y terceros relacionados con el objeto de la subvención o su justificación están obligadas a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida en el ejercicio de las funciones de control que corresponden al Departamento de Intervención, a cuyo fin, tendrá las siguientes facultades:

a) Egiaztatu nahi den dokumentazioa oztoporik gabe lortzea, baita euskarri informatikoetan dauden programak eta fitxategiak ere.

b) Diruz lagundutako jarduera burutzen den negozio-lokaletara eta gainerako establezimendu edo lekuetara sartzeko oztoporik ez izatea, edo diru-laguntzaren kontura finantzatutako jardueren benetakotasuna eta erregularitasuna egiaztatze aukera izatea.

c) Fakturen, fakturen baliokideen, fakturen ordezkoen eta jardueri buruzko beste edozein agiriren kopia lortzea, edo agiri horiek atxikitzea; baldin eta diru-laguntza modu okerrean lortu, gozatu edo erabili deneko zantzuak baldin badaude.

d) Diru-laguntza kobratzeko erabili ahal izan diren edo dirua eskuratzeko erabili diren bankuko kontuen gaineko informazioa oztoporik gabe lortzea.

2. Obligazio hau betetzeari ezetz esaten bazaio, uste izango da kontrol jarduerak egiteko zailtasunak, aitzakiak eta oztopoak jartzen direla. Hori diru-laguntza itzultzeko arrazoia izan daiteke, ordenantza honetan aurreikusitako eraginak betetzeko. Horretaz gain, bidezkoa bada, dagozkion zigorrak jarriko dira.

55. artikulua. Finantza kontrolerako prozedura.

1. Udalak eta bere ardurapeko Autonomiadun Erakundeek emandako diru-laguntzen finantza-kontrola egiteko eskumena Udaleko Kontu-hartzailetzaren esku egongo da.

2. Onuradunei, eta hala badagokio, erakunde laguntzaileen gaineko finantza-kontrolerako jardueri hasiera emateko, jakinarazpena bidaliko zaie horiei. Bertan, burutuko diren jardueren izaera eta eragina; hasiera batean, Udaleko Kontu-hartzailetzaren esku jarri behar den dokumentazioa eta beharrezkoak diren gainontzeko elementuak jakinaraziko dira. Onuradunei, eta hala badagokio, erakunde laguntzaileei jardueren baitan izango dituzten eskubideen eta obligazioen berri eman beharko zaie, jardueri hasiera ematen zaienean.

3. Jarduera hauek, gehienez ere, 12 hilabeteko epean bukatu beharko dira, jardueri hasiera eman zaiela jakinarazten denetik hasita.

4. Onuradunen, eta hala badagokio, erakunde laguntzaileen gaineko finantza-kontrolerako jardueri amaiera emateko, agerian geratu diren ekintzak eta horietatik atera daitezkeen ondorioak jasotzen dituzten txostenak egingo dira.

5. Txostenak kontrolpean jarri diren onuradunei edo erakunde laguntzaileei jakinaraziko zaizkie. Txostenaren kopia bat bidaliko da diru-laguntzaren gestioaz arduratzen den, edo hala badagokio, diru-laguntza eman zuen Udalaren sailera edo Autonomiadun Erakundera. Bidezkoa bada, itzulera espedientei eta zigor espedientei hasiera eman behar zaiela adieraziko da.

6. Udaleko Kontu-hartzailetzak egindako txostenean aipatzen bada bidezkoa dela diru-laguntza osoa edo diru-laguntzaren zati bat itzultzea, organo emaileak, txosten hori oinarritzat hartuta, eta hilabeteko epean, itzulera-espedienteari hasiera emateko akordioa hartu beharko du. Era berean interesatuari hori jakinaraziko dio. Interesatuak 15 eguneko epea izango du, bere defentsarako egokitatzat jotzen duen guztia alegatzeko.

a) El libre acceso a la documentación objeto de comprobación, incluidos los programas y archivos en soportes informáticos.

b) El libre acceso a los locales de negocio y demás establecimientos o lugares, en los que se desarrolle la actividad subvencionada o se permita verificar la realidad y regularidad de las operaciones financiadas con cargo a la subvención.

c) La obtención de copia o la retención de las facturas, documentos equivalentes o sustitutivos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que se deduzcan indicios de la incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención.

d) Libre acceso a información de las cuentas bancarias en las entidades financiera donde se pueda haber efectuado el cobro de las subvenciones o con cargo a las cuales se puedan haber realizado las disposiciones de fondos.

2. La negativa al cumplimiento de esta obligación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa y podrá ser causa de reintegro a los efectos previstos en esta Ordenanza, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

Artículo 55. Procedimiento de control financiero.

1. La competencia para ejercer el control financiero de las subvenciones concedidas por este Ayuntamiento y sus Organismos Autónomos corresponderá a la Intervención Municipal.

2. La iniciación de las actuaciones de control financiero sobre las personas beneficiarias, y en su caso, sobre las entidades colaboradoras, se efectuará mediante su notificación a éstos, en la que se indicará la naturaleza y alcance de las actuaciones a desarrollar, la documentación que en principio debe ponerse a disposición de la Intervención Municipal y demás elementos que se consideren necesarios. Las personas beneficiarias y, en su caso, entidades colaboradoras deberán ser informadas, al inicio de las actuaciones, de sus derechos y obligaciones en el curso de las mismas.

3. Estas actuaciones deberán concluir en el plazo máximo de 12 meses a contar desde la notificación del inicio de las actuaciones.

4. Las actuaciones de control financiero sobre beneficiarias/os y, en su caso, entidades colaboradoras, finalizarán con la emisión de los correspondientes informes comprensivos de los hechos puestos de manifiesto y de las conclusiones que de ellos se deriven.

5. Los informes se notificarán a las personas beneficiarias o entidades colaboradoras que hayan sido objeto de control. Una copia del informe se remitirá al Área municipal u Organismo Autónomo gestor, en su caso, que concedió la subvención señalando, en su caso, la necesidad de iniciar expedientes de reintegro y sancionador.

6. Cuando en el informe emitido por la Intervención Municipal se recoja la procedencia de reintegrar la totalidad o parte de la subvención, el órgano concedente deberá acordar, con base en el referido informe y en el plazo de un mes, el inicio del expediente de reintegro, notificándolo así al beneficiario o entidad colaboradora, que dispondrá de 15 días para alegar cuanto considere conveniente en su defensa.

V. TITULUA

DIRU-LAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK. ZIGORTZEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA. ADMINISTRAZIOKO ARAU-HAUSTEAK

56. artikulua. Arau-hauste kontzeptua.

Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 56, 57 eta 58. artikuluetan, eta Ordenantza honetan zehaztutako ekintzak eta hutsegiteak diru-laguntzen arloko administrazioko arau-haustek izango dira. Eta axolagabekeria hutsa badira ere, zigortzeko modukoak izango dira.

57. artikulua. Erantzuleak.

1. Diru-laguntzen arloan, administrazioko arau-hausteen erantzule izango dira, ekintza edo hutsegiteren baten ondorioz, arau-hauste gisa zehaztutako ustezkoetan erortzen diren pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, eta bereziki honako hauek:

- a) Diru-laguntzen onuradunak, diruz lagundutako jardueraren bat betetzeko konpromisoa hartu dutenak.
- b) Erakunde laguntzaileak.
